

Lezoko zine agenda

ABENDUA

DICEMBRE


2004



Gezala

AUDITORIUMA


800
zine ma



EL CÍRCULO

Ekialdeko zinemetan ikus daitekeenaren adibide berri bat da film hau. Irandar zuzendari gehienak bezala, honako honetan ere ez da apaindura handiko irudirik aurkituko. Pelikula txukun honetan, elkarrekin oso ongi jositako istorio ezberdinen bidez, Irango gizartean emakumeek betetzen duten rola berri izango dugu. Donostiako 2001. urteko zinemaldian FIPRESCI saria eta 2000. urteko Veneziaokoan bost sari eskuratu zituen.


2000, Iran 90 min. Jafar Panahi.
F. Sadr Orafi, M. Parvin Almani, N. Mamizadeh, E. Sabotakin, M. Arab, F. Naghavi, M. Faramarzi.



LA LEY DE HERODES

Mexikon kokatzen den istorioa erakusten du filme honek. PRI alderdi politikoak hautagai bat izendatu behar du Mexikoko herri urrun bateko alkatetzarako: Juan Vargas PRIko militante zaharra eta zabortege bateko arduraduna izango da hautagaia. Karikaturizazioa erabiliz Mexikoko sistema politikoaren berri ematen du filmak. Vargas umil eta apal hasiko da herriarentzako lanean, baina azkenean ustelkerian murgilduta amaituko du. Istorioa ezaguna zaigu, baina kontatzeko era da azpimarragarria. Une barregarri eta ahaztezinak! Valladoliden, Sundancen edota garrantzi gutxiagoko beste zinemalditan oso saritua.


2001, Mexiko 120 min. Luis Estrada
Damián Alcázar, Pedro Armendariz, Delia Casanova, Alex Cox, Guillermo Pil.



EL CREYENTE

Judutarra den skinhead bat imajina dezakezu? Ez gara kitenkeria batetaz ari, ezta hala nola idatzitako gidoi bati buruz ere. Gauzak bere logika dute eta pelikula honetan oso seriooki lantzen dira biolentzia, erlijioa eta marjinazioa bezalako gaiak. Umetan eskola judutarretan ikasitakoa eta Torahren, judutarraren legearen, interpretazioarekin bat ez zetorrelako errabinoekin arazoak izandakoa da Danny. EEBBetan eskuin muturreko taldeak nola antolatzen diren azaltzen du filmak. Gertaera errealetan oinarritua!

2001, EEBB 98 min. Henry Bean.
Ryan Gosling, Summer Phoenix, Theresa Russell, Billy Zane.



VIDAS CONTADAS

Robert Altmanek 'Short Cuts' en egin zuenaren antzera, pelikula koral honetan istorio ezberdinak kontatzen dira. Istorio guztiek patua dute ardatz nagusi. Interpretazioak onak dira eta gidoi zoragarri baten zerbitzura ari dira oreka uneoro mantenduz. Azken batean, hausnarketa bultzatu nahi du filmeak eta horretarako behar adina aitzakia eta adibide eskainiko dizkigu aipatu istorioen bidez. Hainbat zinemalditan saritua izan da.


2001, EEBB 94 min. Jill Sprecher.
Matthew McConaughey, David Connelly, Joseph Siravo, A.D. Miles, Sig Libowitz.



SECRETOS DE UN MATRIMONIO

Bergmanen zinea jada, bere zentzurik hoberenean, klasiko bilakatu da. Egin dituen pelikula guztien artean (eta ez dira gutxi) ostegun honetakoa 'Fanny and Alexander' edo 'Fresa salvajes'ekin batera azpimarragarrien artean kokatu genezake. Senar-emazte baten harremanaren gainbeherari buruzkoa da. Ohar bat aipatzekotan zera esan behar da, hasieran kosta egingo zaizu pelikulan sartzea, baina aukera bat emanez gero, zailtasunak istoriotik ateratzeko izango dituzu.


1973, Suedia 167 min. Ingmar Bergman.
Liv Ullman, Erland Josephson, Bibi Andersson, Jan Malmström, Anita Wall.



FUCKING AMAL

Urrian, eskandinabiako zinemari eskaini genion zikloan oso ongi txerta zitekeen pelikula hau. Bere momentuan ez zen posible izan eta orain aukera ez da bazterrean utzi nahi izan. Suedian ere zine 'frexkoa' egiten badakitela frogatzen du pelikula honek. Nerabezaroan murgilduta dabilen gaztearen istorioa baina helduentzako kontatuak. Dogma izeneko mugimenduaren eragina somatu daiteke propioki mugimendu horretan kategorizatu ezin bada ere.

2002, Suedia 89 min. Lukas Moodysson.
Alexandra Dahlström, Rebecka Liljeberg, Erica Carlson, Mathias Rust.



MARTIN (HACHE)

Aristarain argentinarrak eduki sozialak lantzen ditu eta, okerrik egiteko beldurrik gabe, lan horietan hoberenatarikoa dela esan daiteke. Baieztape honetaz alantzarik eragiten badizu apustuak onartzeko prest ere egon gaitzake. Elkarriketa luzeak baina erabat gogoangarriak. Eusebio Poncela bikaina, Cecilia Roth ahaztezina eta betiko Federico Luppi antzezle talde berdingabeak drogak, maitasuna edo fidelitatea bezalako gaiak lantzen dituzte pelikula honetan. Donostiako 2001eko zinemaldian honek ere, 'Lugares comunes' filmeak bezala, zilarrezko maskorra irabazi zuen.


1997, Argentina 123 min. Adolfo Aristarain.
Federico Luppi, Cecilia Roth, Eusebio Poncela, Juan Diego Botto.



ATRAPADO EN EL TIEMPO

Oso istorio kuriosoa kontatzen du filme honek. Phil eguraldi-gizona da. Bere izaeratik zigor bat bete beharko du: egunero egun bera bizi beharra. Egunero egoera berdina errepikatuko zaizkio, nahiz eta, inguruko jendea ez den errepikatutasun horretaz jabetuko. Bere izaera aldatzen ez duen bitartean ez da zirkulu horretatik aterako. Bere garaian pelikula bitxizat hartu zen eta arrakastatsua izan zela ere esan behar da.

1993, EEBB 101 min. Harold Ramis.
Bill Murray, Andie MacDowell, Chris Elliot, Angela Paton.



TAKOLO, PIRRITX ETA PORROTX: "KATXIPORRETA"

15 urte daramatzate Takolo, Pirritx eta Porrotxek Euskal Herriko plazak, antzeztoki edota ikastetxeak bisitatu eta irribarrez betetzen. Oraingoan 'Katxiporreta' ikuskizunarekin bueltatu dira gure lagun 'koloredunak'. Aipatu urte guzti horietan zehar egindako ikuskizun ezberdinetako une aipagarrienekin taxutu dute 'Katxiporreta' hau. Eta pailazoak aipatu ditugularik, GOGOAN IZAN urtarrikak 9an Lezoko kiroldegian ikusteko aukera izango duzuela!


2003, EH 75 min. Takolo, Pirritx eta Porrotx.
Takolo, Pirritx eta Porrotx.



KIKI ETA MIKI PAILAZOAK: AMA LURRA BIHOTZEAN

Pailazo hauek ere ezagunak dira Lezoko haurrentzat. Joan den otsailean Goiko Plazan aritu ziren beren ikuskizunarekin haurrei irribarreak eraginaz. Oraingoan beren istorioa bideo batetan grabatu dute eta Gezalari ikusteko aukera izango dugu. Bere ikuskizunean ama-lurraekin eta naturarekin duten harremanen inguruko istorioak kontatuko dizkigute.


2002, EH 70 min. Kiki eta Miki Pailazoak.
Kiki eta Miki Pailazoak.



GABON IPUINA

Charles Dickens ipuinean oinarritutako gidoia. Gabonetan bi polizia Lambert doktorea atxilotzera doaz, honen erietxeak gas-tuak ordaindu ezin eta, zorraz eragin dituelako. Belle erizainak bere laguntza eskaini nahi du, baina dirua Scrooge maltzurari ordaindu beharraz jabetzen da. Gau batean, Scroogek hiru bisita jasoko ditu. Hiru mamuk bizitza modu ezberdinetan ikus daitezkeela erakutsiko diote. Marrazki bizidun zoragarriak.

2001, EB, Alemania 89 min. Jimmy T. Murakami.
Marrazki bizidunak.



RUDHOLP SUDUR GORRIKO ELUR OREINA

Rudolphen lana Santa Klausen lera tiratzea da. Pelikularen izen buruak dioen bezala sudur gorria du eta horrek abentura kitzikagarria biziaraziko dio. Sudur gorria izateagatik bere ingurukoak barre egingo diote. Guzti horrek eraginda Ipar polara alde egitea erabakitzen du. Han izotzetako erregina maltzuraren aurka ari-tuko da Santa Klaus Gaborak salbatzen laguntzeko. Elur orein maitagarri honekin une atseginak igaro ditzakegu egun seinalatua hauetan.

2001, EEBB 85 min. Bill Kowalchuk.
Marrazki bizidunak.

Tener 13 años en el 36

abenduaren 10ean, ostirala,

Protagonista, Joaquín Galvez, 80 urteko irundarra. Egilea, Kepa Gonzalez, gurekin izango dira.

Ez dut inoiz ahaztuko 1944 urteko goiz hura. Berriz ere Iru-
nen, zortzi urte luze erbestean izan ondoren... Horrela has-
ten da **Tener 13 años en el 36** erreportajea.

Datorren ostiralean, abenduaren 17an, Lezon izango da **Joaquín Galvez**, 80 urteko irundarraren historia. Irudi eta komentarioen bitartez Joakinek bere garaiko historia kontatzen du.

Hau da Lezoko udalak antolatutako duen Kepa González dokumental egile sarituaren hirugarren dokumentalaren emanaldia. Honakoan, **Joaquín Galvez**, 80 urteko irundarraren aita eta anaiak Irungo frontean geratzen zirene bitartean Joakinek erbesterako bide luze bat hasi zen: Frantzia, Katalunia, berriz ere alemanek okupatutako Frantziako lurraldeak, azkenik, zortzi urte beranduago, gerra osteko Irunerara bueltatzeko.

Kepa Gonzalezen erreportajeak gure historiako epoka bat jasotzen du, sasoi haiek zuzenean jasan zituen protagonista baten irudietan, eta egilearen eta Joakin Galvez protagonistaren komentarioekin.



Orratx! Antzerki Taldea

"Komediante tunante baino..."


▶ abenduaren 18an, larunbata 19:00 <<<<<<<

Alesio komediante napolitarra Europa aldenik alde pasatakoa da, eta han eta hemen bere “talentua eta umore landua” erakusten du. Herrialde guziki ez dira berdinak, ordea, eta hauekato zenbaitetik, tira, askotatik, hankak arin astinduz alde egin beharrean gertatu da. Andaluziako lurretara ailegatuta, Sevillan egitekoa den Komikoen Lehiaketaren berri izan du, eta hara abiatu da Triton bere morroiarekin.

Sevilla hiri handia izaki, han ere egunero jan behar ba, antzezlanen batean papera lortu nahian, bila hasiko da *Alesio* bere morroi Tritonen laguntza bikainarekin. Hala dabilela, ustekabean, aktore lana ikasi nahi duen Luziarekin egingo du topo eta, badaezpadako komedianta talde batean hartuko dituzte antzerki lehiaketan parte hartu ahal izateko. Hortik aurrera, gaizki ulertuak, egia erdiak eta egoera bitxiak uneoroko osagai bihurtuko dira.



ABENDUA - diciembre		
eguna/día	ordua/hora	pelikula
OSTEGUNA 2	22:00	EL CÍRCULO
LARUNBATA 4	22:00	FUCKING AMAL
IGANDEA 5	16:30	TAKOLO, PIRRITX ETA PORROTX: " KATXIPORRETA "
OSTEGUNA 9	22:00	LA LEY DE HERODES
LARUNBATA 11	22:00	MARTIN (HACHE)
IGANDEA 12	16:30	KIKI ETA MIKI PAILAZOAK: AMA LURRA BIHOTZEAN
OSTEGUNA 16	22:00	EL CREYENTE
LARUNBATA 18	22:00	ATRAPADO EN EL TIEMPO
IGANDEA 19	16:30	GABON IPUINA
OSTEGUNA 23	22:00	VIDAS CONTADAS
IGANDEA 26	22:00	RUDHOLP SUDUR GORRIKO ELUR OREINA
OSTEGUNA 30	22:00	SECRETOS DE UN MATRIMONIO
2005		
URTARRILA - enero		
eguna/día	ordua/hora	pelikula
IGANDEA 2	16:30	BOSTAK (4)



BOSTAK (4)

Aurreko hilabeteen hasitako abenturekin jarraituko dute bostak. Oraingoan hiru abentura ikusi ahal izango ditugu: 'Bostak estuasunean', 'Bostak kanpinera doaz' eta 'Bostak kontrabandisten artean'. Lehenengo abenturan bahiketa kontuekin egingo dute topo, bigarrengean mamuak jarraitu beharko dituzte eta hirugarren abenturak kontrabandistak izango ditu gai. Galtza bete lan izango dute oraingoan ere gure lagunxoek.

1996, EB 🕒 65 min. 🏠 Tim Dowd.
👤 Jemima, Rooper, Marco Williamson, Paul Child, Laura Petela.